



■ HERNANI ERREMONTA

## Norgehiagoka gaurkoan, Urriza eta Barrenetxea IVaren eskutik

Gaur Urriza eta Barrenetxearen arteko lehia egongo da. Irabazleak, Kutxabank Txapelketako finalerako txartel zuzena lortuko du. 16:00etan hasita izango da.

ASTEARTEAN Urrizak, 8 puntu lortu zituen Endikaren aurka irabazitako buruz burukoan, eta lehenengo postuan doa Kutxabank Txapelketan. Urrizaren atzetik, Barrenetxea IV doa bigarren postuari eutsiz, 6 punturekin.

Gaurkoan, elkar lehiatuko dute, buruz buruko Kutxabank Txapelketako finalerako txartel zuzena lortzeko asmoarekin. Barrenetxeak dio, Urrizarekin jokatzeko modua aldatuko duela, «bestela porrota, seguru». Erremonteko pelotari guztiak, beldurtuta daudela adierazi du, «frontoieko paretaren erdian, horma erraldoi batekin topo egingo dugulakoan gaude».

Gaur, galtzaile ateratzen denak, semifinala jokatu beharko du Endikaren aurka. Barrenetxeak dio, Endikak ez duela partidua errazik jarriko. Ohi bezala, arratsaldeko 16:00etan hasita izango da, Galarretan. ■

■ HERNANI CD HERNANI

### Lau zita, etxean

Lagunartekoekin jarraitzen dute CD Hernaniko talde guztiak. Gaur lau partidua jokatuko dituzte; guztiak, Zubipen. 09:30etan, jubenil lehenengo mailakoek Internacional hartuko dute; 11:00etan, ohorezko jubenilek, Mundarro; 16:30etan, preferenteek, Beasain; eta 18:30etan, ohorezko erregionalek, Anglet. ■

■ HERNANI LATSUNBEBERRI-MARIELUTSEKO JAIK

## Atzoko etxeferoa, festa haundiaren iragarle

Zaku lasterketa, zapi joko eta mahai futbolaz gozatzeko aukera egongo da. Horrez gain, musika eta dantza egiteko aukerarik ere ez da faltako Latsunbeberri-Marielutsen gaur eta bihar.

Atzoko ajea ahaztuta, goizeko 10:00etan hasiko dute festa gaur Latsunbeberri-Marielutsen betiko jokoeekin, eta hauek egin bitartean marrazki lehiaketan parte hartzeko aukera ere izango da. Behin bukatuta, VII. Esku pelota txapelketa jokatu da 12:00etan. Ondoren, trikitalariek erreleboa hartu eta Latsunbeberriko kaleetan barrena abiatuko dira, buruhaundiekin batera. Amaitu ostean, txikientzat aparraren jai izango da.

Paella ederra egingo dute bazkaltzeko, eta gero, hamaiaka joku egingo dira: mus txapelketa, ping pong eta toka txapelketa, besteak beste.

Gauean, 23:00etan bingoa egingo dute, eta zezen suzkoak auzoa suz beteko du, ostean. Bitartean, DJ Mikeltzik girotuko du Latsunbeberriko balio anitzeko zelaia, nekatu arte. ■



Perkusio tallerrarekin gozatu ederra hartu zuten atzo Latsunbeberri-Marielutseko festen hasieran.

■ HERNANI ERRUGBIA

## Getxok eta Hernanik Faduran dute zita

Gaurko partidua, Euro Basque Rugby Challengeeko 3garren jardunaldikoa da eta Getxo, Hernaniren aurka estrenatuko da, pasa den asteburuan G7 goi-bileraren eraginez, ez baitzen partidurik egon.

GAUR arratsaldeko 16:00etan, Faduran Hernanik Getxoren aurka lehiatu beharko du. Getxoren aurreneko partidua izango da hau, aurreko asteburuan ez baitzuen jokatu, G7a zela-eta.

Hortaz, gogotsu egongo dira bizkaitarrak, eta dena emango dute Polidoriren mutilen aurka. Hala ere, trikoloreak Lizarran egon diren bitartean indarrak hartu di-

Gaur arratsaldeko 16:00etan izango da mutilen partidua Getxon, Fadurako zelaian

tuzte, eta pilak kargatuta itzuli dira.

**Emakumeak, Zizurkilen**  
Gaurkoan, neskek ere protagoni-

Emakumezkoek, gaur eguerdiko 12:00etan jokatuko dut, Zizurkileko Danena zelaian

nismoa dute, gaur baita emakumeen errugbi eguna. Hori dela-eta, II. Melokotoi Txapelketa antolatu dute Zizurkilen, eta bertan izango da Hernani.

Eguerdiko 12:00etan hasiko dira partidua, Zizurkilen. Hernaniz gain, beste hiru taldek hartuko dute parte: Bera Bera, La Unica eta Ordiziak, hain zuzen. Txapelketa amaitu ostean, 14:00ak aldera bazkaria egingo dute, tripak bete eta indarrak hartzeko 3garren denborarako.

Arratsaldean, 19:30ak inguruan, *The hastelen's* taldeak kontzertua eskainiko du. ■

HERNANIKO UDAL EUSKALTEGIA

19/20 ikasturtea

Bulego ordutegia: 09:30-13:30 / 16:30-19:30

**Matrikula irekita irailaren 3tik 20ra**

Malla guztiak: aurrez aurre eta autoikaskuntza

Moduluak: asteen 2 edo 4 egun

Eta azterketak: HABE, PERFILAK, EGA, IVAP...

Titulu ofizialak: euskaltegian lortzeko aukera!

Diru laguntza handiak! Etorri galdetzerak!

**Egin gurekin bat!**

HERNANIKO Udal Euskaltegia

Karobieta 63 (Ambulatorio zaharra)

HERNANI

Tel. 943 331 896

euskaltegi@hernani.eus

**aizpuru farmazia**

Karmele Aizpuru

**JAI ZORIONTSUAK IZAN DITZAZUELA!!**

Latsunbe berri 11, Hernani

943 33 60 77

Menu bereziak, entsaladak, kostilla...

Astelehenetik larunbatera gauero

Ostiralak, larunbatak eta igandeak eguerditan ere bai

**AKARREGI**

sagardotegia

Txotx garaia ABENDURA arte luzatuko dugu

Akarregi Auzoa - Hernani | 660 144 560



**GAUR** Gaur, ipar mendebaldeko haizeak hodei ugari ekarriko du itsasaldetik. Eguerditik aurrera okertzeraz egongo du, arratsaldean euria egingez. Hala ere, goizean eguzki tarteak izango dira. Tenperatura aldaketa handirik ez da egongo, hala ere, feskatzera egongo du. **Min.19° / Max.24°**



**BIHAR** Iraila, udazken giroarekin hasiko dugu, giro umela izango da eta hodeiek eguzkia tapatuko dute. Euri gutxi egongo du, baina iparaldeko haizea ibiliko da tarteka, hotz eta freskotasun sentazioa handituz. Orokorrean tenperatura jaitsiera egongo da. **Min.18° / Max.20°**



**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **TENA ASTIGARRAGA** Nagusia, 16 **943 543718** **Gauzez:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



## URUMEA LANEAN

# Laguntzak, gozogintzan langabeak kontratatatzeko

Beterri Buruntza eskualdeko Auzolan Berri programaren barruan, irailaren 1etik eskatu ditzakete laguntzak, enpresek.

Auzolan Berri programa Beterri Buruntza eskualdeko Udalek martxan jarritako programa bat da, lau urtekoa. Andoain, Astigarraga, Urnieta, Usurbil eta Hernaniko Udalek bazterketa egoeran dauden pertsonen integrazio soziala eta laborala bermatu nahi dizkie honekin.

Aurreneko edizioan, Gozogintza eta Okintza sektoreko prestakuntza jaso dute hainbat lagunak, eta orain, hauek kontratatatzeko diru laguntzak emango zaizkie enpresei.

### Kontratazioetarako laguntzak eskatzeko epea irekita, enpresek

Kontratazio hauek egiteko diru laguntzak eskatu ditzakete enpresek irailaren 1etik azararen 15era, Astigarragako Udalean, Posta bulegoetan (Correos) edo Astigarragako Udalaren egoitza elektronikokoan.

Argibideak, berriz, eskatu daitezke Andoain (943 30 42 21/ [enplegua@andoain.eus](mailto:enplegua@andoain.eus)), Her-



Argazkia: Dennis Mojado

nani (943 25 63 47/[enplegu-soziala@hernani.eus](mailto:enplegu-soziala@hernani.eus)) eta Astigarragan (943 50 57 00/[enplegu@astigarraga.eus](mailto:enplegu@astigarraga.eus)).

Diru laguntza jaso ahal izateko, egin behar diren kontratuek izan behar dute 2019 irai-

laren 1etik urriaren 15erako tartean hasteko, gutxienez 3 hilabeteko iraupenekoak eta lanaldi osokoak edo gutxienez, %70eko lanaldikoak. Laguntzak 2.500 eta 3.000 euro artekoak izango dira. ||



ITUROLATARROK

Isladak Irudikatuz  
Idoia Telleria Maritxalar

## Naturak gure tokian jartzen gaitu

Lan eremuetan pertsonak eta harremanek duten garrantziaz jabetzen hasi garela dirudien honetan izan elkartegintza, herri mugimendu edo lan zentro), eseri zure lan taldearekin erreka bazter batean.

Irudikatu, ura zuen lana (egitekoen multzoa) dela eta bertan dauden harriak zuek zaretela. Galdetu zuen buruei: Non zaudete? Non daude harriak? Ur azpian zereginek itota? Bazterrean, guztien artean urari bidea egiten? Bata bestearengandik urruti? pilatuta?

Eginbeharren zurrumbiloi harrapatuta gabiltzan honetan, naturak, zurrumbiloi eroaren soinua isiltzen du.

Gelditzera gonbidatzen gaitu, benetan garrantzitsua dena, funtsezkoa den hori gogoratuz. Bizitzara ekartzen gaitu.

Nork ez du izan mendira joan eta denbora gelditzearen sentazioerik? Non gauden, nola eta norantz eman nahi ditugun hurrengo urratsak pentsatu eta sentitzeko parada. Naturan dugu aliatu paregabea lan taldeetan aritzeko moduak aztertu eta hobetzeko bideak topatzeko. Non eta nola behar dute egon harriak (guk), erreka (proiektuak) bere bidea egiteko? Nola gaude, eta garrantzitsuena dena: non eta nola egon nahi dugu?

Gelditu gaitzen momentu bat, isildu soinua. Horrela bakarrik entzun ahalko dugu benetan behar duguna.

**Enara Izagirre Arrizabalaga**  
Natur espazioetan taldeen bidelagun  
<https://harago.eus/zerbitzuak/natur-bizipenak/>

**Hernaniko Elkarlan Sorgunea**  
Iturola.eus  
Florida Auzoa,28 - 20120 Hernani



**TALLERES MITXELENA**  
**BABESTUTAKO ATALA**  
Ezlagu Pollgonoa, 21  
Zikufiaga Auzoa, Hernani  
[www.talleresmitxelena.eus](http://www.talleresmitxelena.eus)

## Ikastaroetan aukera, lan egiteko

Ikasturte berrian Goizuetan ikastaroren bat emateko prest dauden autonomoek izena eman dezakete, irailaren 6ra arte.

Urtero bezala, 2019-2020 ikasturtean zehar ere hainbat ikastaro eskaini nahi ditu Goizuetako Udalak. Horretarako, lehendabizi ikastaroren bat emateko prest dauden proposamenak jasoko ditu.

Hain zuzen, ikastaroren bat emateko prest daudenek izena emateko epea irekita daukate,

irailaren 6ra arte. Zehaztu behar dute zein ikastaro emanen luketen, ordutegia, prezioa, iraupena, nori zuzendua den... Eta autonomoak izan behar dute. ||

### IRAGARKI MERKEAK

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

**Asegururik ba al duzu?**  
**Deitu Orbegozora**

24 orduko tlfnoa.  
**943 33 10 20** [www.funerariaorbegozo.com](http://www.funerariaorbegozo.com)

- \* Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin
- \* Beilatokiak
- \* Errausketak
- \* Lekualdatzeak
- \* Eskelak, koroak...

Zentrala - Latsunbe 7, Hernani

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA